



## IRAGARKIA

### **Elorrioko Udalak herri barruan kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa erabiltzeagatik, Auzo-taxi 2026 programarako dirulaguntza deialdia onartzea (2026-00636 espedientea)**

Abokazioz, 2026ko otsailaren 13an (Alkatearen Erabakia 84 zenbakia), herri barruan kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa erabiltzeagatik, Auzo-taxi 2026 programarako udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorri, 2026ko apirilaren 16a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



## **ELORRIOKO UDALAK BIDAIRIAK HERRI BARRUAN KOTXEZ GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ERABILTZEAGATIK (2026 AUZO-TAXI PROGRAMA) DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

### **1 Artikulua. Dirulaguntzaren xedea**

Oinarri hauen xedea 2026 urtean zehar, Elorrion, bidaiariak herri barruan kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa erabiltzeagatik diru-laguntzen emakida arautzea da.

### **2. artikulua. Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntza hauek onartzeko dagokion kreditu erabilgarria 10.000,00 eurokoa da. Gastu hau 2026 ekitaldiko aurrekontuko 2026.4140.471.02 (auzo-taxia) diru-ataletik ordainduko da. Nolanahi ere, hasierako zenbatekoa nahikoa ez balitz eskaera guztiei erantzuteko zenbateko gehigarria finkatu ahal izango da eta aplikatzeko deialdi barri bat ez da egin behar izango. Edozein modutan, zenbateko honen efikazia kreditu-erabilgarritasuna dagoela jasotzen duen adierazpenari baldintzatuta geratzen da, dagokion erabakia hartu ostean, eta edozein kasutan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58.2 artikulua aurreikusten dituen baldintzekin bat.

### **3. Artikulua. Ereduak eta onuradunak**

Honako bi (2) modalitateak ezarri dira. Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren betebeharrak betetzen dituzten pertsona fisikoek:

#### **3.1. A EREDUA**

a) Elorrion erroldatuta egotea I. eranskinean agertzen diren auzo edo lokalizazioetako batean eskabide-orria aurkezten duen egunean.

b) Horrez gain, honako betebeharrak bat betetzea:

- Ezgaitasunen bat egiaztatuta izatea, %33 gutxienik.
- 65 urte beteta izatea
- III. eranskineko diru-sarrerak baino txikiagoak dituzten familia-unitateak.
- Osasun arrazoiengatik mugikortasun urria izatea aldi baterako. Egoera hau egiaztatu egin beharko da.

c) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorrak, 13. Artikuluan, edo Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, 10. Artikuluan, aurreikusten dituen debekuetako baten ere sartuta ez egotea.

#### **3.1.B EREDUA**

a) Elorrion erroldatuta egotea I. eranskinean agertzen diren auzo edo lokalizazioetako batean eskabide-orria aurkezten duen egunean.

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorrak, 13. Artikuluan, edo Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, 10. Artikuluan, aurreikusten dituen debekuetako baten ere sartuta ez egotea.

Ezingo zaie dirulaguntza eman sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigorzehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere.



#### 4. artikulua. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da.

Aurkeztuko den eskabide-orria II. eranskinetako da. Berau Elorriko udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan -erregistro orokorra- (Herriko Plaza) aurkeztuko da 08.00 eta 15.00ak bitartean. Eskabide-orriak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusitako bideen bitartez ere.

4.2.- Eskabide-orriak, eskatzaileak edo ordezkariak behar moduan sinatuta aurkeztuko dira honako agiri hauekin batera:

a) Eskabide-orria sinatzen duenaren NANaren fotokopia. Eskatzailea ordezkari baten bitartez ari bada, modu berean aurkeztu beharko du honen kopia, ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria aurkeztearen kaltetan gabe.

b) Eskabide-orria (II. eranskina) honako informazioa jasotzen duena:

Erantzukizunpeko adierazpena zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneko egotearena, Diru-Laguntzen Lege Orokorren araudia onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

Erantzukizunpeko adierazpena Eskatzailea 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorra 10. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako baten ere sartuta ez dagoela egiaztatzen.

Zinpeko deklarazioa xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren dirulaguntzak zeintzuk diren zehaztuko direnean, hau da: erakundearen izena eta jasotako dirulaguntza edo eskatutakoa.

c) Kasua bada, oinarri hauetako 3.1 b) artikulua zehazten dituen egoerak ematen direnean egoera egiaztatzen duen agiria.

Arrazoi medikoengatik mugikortasuna aldi baterako murriztuta duten pertsonen kasuan, 3 hilean behin justifikatu beharko dute beren gaitasun-egoera, eta hori adierazten duen mediku-egiaztagiria aurkeztu Udalean.

d) Erroldaren gaineko kontsulta Udalak, ofizioz, egingo du.

4.3.- Aurreko a) eta e) hizkietan zehaztutako agiriak ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorriko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira. Atal honetan aurreikusitako kasuan, eskatzaileak udaletxeari, datu/agiriok udaletxean daudela idatziz esan beharko dio, eta aldaketarik ez dela egon aitortu beharko du erantzukizunpeko adierazpen bidez.

Aurrekoan esandakoaren kalte gabe, dirulaguntza indarrean dagoen aldiaren sortzen den edozein aldaketa udaletxean jakinaraziko da, eta kasu honetan, egoera barria erakusten duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

4.4.- Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, eskatzaileari 10 (hamar) egun baliodun emango zaizkio falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Eskaerak aztertu ondoren edo geroago, edozein momentutan, Udalak interesdunari eskatu ahal izango dio 4.2 atalean aurreikusi ez den dokumentazio osagarria aurkeztea ikusteko bidezkoa den dirulaguntzaren onartzea, mantentzea edo ukatzea.



4.5 Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio dirulaguntza bideratuko duen sailari honako honetarako:

- Errolda kontsultatzeko bizilekua Elorrion duela egiaztatzeko.
- Udalarenak diren zerga obligazioetan egunean dagoela eta udal dirulaguntzarik ez duela itzuli behar egiaztatzeko.
- Foru Ogasunari edota Lanbideri bere datuak eta Udaletik jasotako diru-laguntzen zenbatekoen gaineko informazioa emateko.

## 5. artikulua. Diruz lagunduko den xedea

Diruz lagunduko dira honako betebeharreko hauek betetzen dituzten bidaiak:

- Herri barruan kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoan (taxia) egindako bidaiak, taxi-lizentzia duten eta Elorrioko Udalarekin programa honetarako hitzarmena sinatu duten taxilariekin. Horretarako, dirulaguntzara eskubidea onartzen denean emango den txartel identifikagarrian hitzarmena sinatu duten taxilarien identifikazioa eta kontaktu-datuak jasoko dira.
- 2026 urtean egitea, hau da, 2026ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean.
- Egindako ibilbideak I eranskinean jasotako artean egotea.
- Honako egun eta orduen barruan egitea:
  - Astelehenetik barikura: 7.30 - 20.00.
  - Domeka eta jai-egunetan egindako bidaiak ez dira diruz lagunduko.
  - Abuztua ere programatik kanpora geratzen da, ondorioz, abuztuan zehar egindako bidaiarik ez da ordainduko.

## 6. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

6.1 Baldintzak betetzen dituen bidai bakoitzari emango zaion dirulaguntza honako hau da:

a) A ereduko erabiltzaileak (65 urtetik gorakoak, gutxienik, %33ko ezgaitasunen bat egiaztatu dutenak, III. eranskineko diru-sarrerak baino txikiagoak dituzten familia-unitateak, eta medikuak egiaztatutako osasun arazoengatik aldi baterako mugikortasun urria duten pertsonak):

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Erabiltzaileak bidai bakoitzean kostuaren lehen bi euro eta erdi (2,50€) ordaindu beharko ditu.

Kostuaren gainerakoa Udalak dirulaguntza bidez ordainduko du, gehienez bederatziko euro eta erdi (9,50€).

Ondorioz, bi euro eta erdiko (2,50€) edo gutxiagoko kostua duten bidaiak ez dira programa honetan sartzen.

b) B ereduko erabiltzaileak

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Erabiltzaileak bidai bakoitzean kostuaren lehen lau euroak (4,00€) ordaindu beharko ditu.

Kostuaren gainerakoa Udalak dirulaguntza bidez ordainduko du, gehienez zortzi euro (8,00€).

Ondorioz, lau euroko (4,00€) edo gutxiagoko kostua duten bidaiak ez dira programa honetan sartzen.



6.2 Onuradun bakoitzak dirulaguntzarekin, gehienez, urtean 150 bidai egiteko eskubidea izango du.

Udaletxean 150 bidaien muga handitzea eskatu ahal izango da, salbuespenez, arrazoi handiagoren batengatik. Eskaera egin ondoren, egoera baloratuko da, eta gehieneko bidaia kopurua handitu ahal izango da. Ebazpen hori onuradunei eta taxilariei jakinaraziko zaie.

6.3. Joan-etorria egiten denean bakoitza bidaia bat izango da.

6.4 Artikulu honetan aurreikusitakoaren barruan onuradunei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa, beti ere, baldintzatuta geratuko da diru-izendapenari, egokia eta behar bestekoa izango dena.

Baimendutako kreditua agortu bada, 9. artikulua aipatzen duen jakinarazpenaren kalte barik eta 2. artikulua aurreikusten duena gehitzeko aukera kontuan hartuta, diru-izendapena agortu ondoren egin diren bidaiak ez dira diruz lagunduko, dirulaguntza jaso den kasuan zenbateko horiek itzuli egin beharko dituzte.

## **7. artikulua. Instrukzioa eta Erabakia**

7.1.- Prozedura lehiaketa izango da.

7.2.- Prozedura HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILAK abiaraziko du. Instrukzio organoa jasangarritasuneko eta gobernantza irekiko teknikaria izango da.

Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Kasu honetan, instrukzio organoa pertsona bakarrekoa da. Eskabide-orriak aurkeztu ondoren, eta zuzenketarik egin behar den kasuan, hauek zuzendu ondoren, arloko zerbitzu teknikoek egindako eskaerak aztertuko dituzte eta hasierako balorazio bat egingo dute. Aipatutako balorazioa Hirigintza, Ingurumena eta Auzoak Informazio Batzordean berri emango da eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 22.2 artikulua aipatzen duen organo kolegiatua izango da. Honek, aurkeztutako txosten eta balorazioa ikusi eta gero, Tokiko Gobernu Batzarrari erabakia har dezan.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

7.3.- Dirulaguntza onartzeko hasierako erabakiak deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza jasotzeko eskubidea emango dio onuradunari, dagokion erabiltzaile kategoriaren arabera dagozkion mugak, gehiengoak eta baldintzekin.

Taxilariei erabiltzaile berri bat gehitzen denean jakinaraziko zaie, eta erabiltzaileen zerrenda eguneratua helaraziko zaie, horien nortasuna egiaztatu ahal izateko zerbitzua erabiltzen dutenean.

Dirulaguntza emateko, ebazpena eta gero, Udalak dagokion jakinarazpena egingo dio erabiltzaileari. Onuradunak udal-bulegoetan jaso beharko du jakinarazpen hori. Bertan, erabiltzaile-kode bat agertuko da, taxi-gidariari ahoz adierazi beharko diona. Taxi-gidariak erabiltzaileen zerrenda bat izango du. Pertsona horren nortasuna egiaztatzeko, erabiltzaileak NANA erakutsiko dio taxilariari.

7.4.– Dirulaguntzarako aldia beteta eta hitzarmena sinatu duten taxilariak (edo hala dagokionean erabiltzaileak) dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu behar dituzten agiri guztiak aurkeztu ondoren Udalak dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoaren gaineko erabakia hartuko



du, eta kasua bada, itzuli behar diren zenbatekoak zeintzuk diren erabakiko du. Hartutako erabaki hau onuradunei bidaliko zaie.

7.5.- NANaren bidez EZ identifikatzeak, nortasuna egiaztatzeako taxi-gidariak hala eskatzen badio erabiltzaileari, dirulaguntza baliogabetzea ekarriko du.

7.6.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da, indarrean dagoen legediak xedatzen duenaren arabera publizitatea eman behar zaiolarik.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertzeako errekurtsua tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua tartekatzeko Bilboko dagokion auzitegian. Guzti hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

## **8. Artikulua. Dirulaguntzaren kudeaketa**

8.1.- Dirulaguntza Elorrioko Udalarekin hitzarmena sinatu duten taxi-gidarien lankidetzarekin kudeatuko da, sinatutako hitzarmenaren arabera, eta deialdi eta oinarri hauetan jasotako berezitasunen kalterik gabe.

8.2.- Bidaia hasi aurretik taxilariak egiaztatu beharko du erabiltzaileak eta honek eskatutako zerbitzuak Auzo-taxi programaren ditu-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituela, eta horretarako honako pausu hauek eman beharko ditu (erabiltzaileak eman edo erraztu beharko du pausuok betetzea dirulaguntza jaso ahal izateko):

- NORTASUNA EGIAZTATZEA: zerbitzua eskatu duen pertsonaren nortasuna egiaztatuko du eta auzo-taxiaren erabiltzailea dela egiaztatuko du Udalak emandako zerrendan begiratuz.

- IBILBIDEA: Egiaztatuko du erabiltzaileak eskatutako ibilbidea hiri-eremuan eta auzo-taxi programan aurreikusitako eremuaren barruan dagoela (1 eranskina).

- Zehaztutako aktuzio guztiak egin ondoren, taxilariak egindako ibilbide bakoitzeko formulario bat bete beharko du, taxi-gidariak eta erabiltzaileak sinatuko dutena (hiru ale). Formularioaren kopia bat erabiltzaileari emango dio.

8.3.- Bidaiaren prezioa taxilariak ezarriko du indarrean dauden tarifa ofizialen arabera. Erabiltzaileak bidaia amaitutakoan 6. artikulua aurreikusten dituen tarifen arabera dagokion zenbatekoa bakarrik ordainduko du.

Bidaiaren gainerakoa ordaintzeko, Udalaren kontura izango da (adierazitako mugen barruan), eta zenbateko hori erabiltzailearentzat dirulaguntzat hartuko da.

8.4.- Ibilbidean zehar protaera. Erabiltzaile guztiak, baita taxi-gidariak ere, gizalegezko jokabidea izango dute, jokabide umiliagarri, sexista, homofobikoa, jazarpena edo pertsonak degradatzen dituen beste edozein jokabide saihestuz; eta, era berean, inolako diskriminaziorik gabe tratatzeko eskubidea izango dute. Kexa edo salaketaren bat egonez gero, dirulaguntza aztertu eta, hala badagokio, kendu egingo da.

Egokia ez den edozein jarrera berehala jakinaraziko zaio udalari, bitarteko ofizialen bidez edo honako kontaktu honen bidez: haz@elorri.eus edo 946572712.



## **9. Artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa**

9.1.- Onuradunentzat dirulaguntza Udalak taxilariari ordainduko dio. Edozein kasutan, taxi-gidariei egingo zaizkien konturako ordainketak erabiltzailearentzat onartutako eta ordaindutako dirulaguntzak direla aditu beharko da.

9.2.- Onuradunek Auzo-taxi programari loturiko beraien bidai eta bidaien zenbatekoei buruzko informazioa eskatu ahaliko diote Udalari, onuradunek berauei onartutako dirulaguntzaren jarraipen eta kontrola ahalbidetzeko.

Erabiltzailearen ardura izango da bidaien eta zenbatekoen kontrola eta jarraipena egitea, kasuan Udalak bidal dezakeen informazioaren helburua hori baino ez delarik: informatzea.

Udalak, erabiltzaileei jakinaraziko die Auzo-taxi programarako onartutako aurrekontuaren kreditua agortutakoan edo hein handi batean bete denean eta onuradunei onartutako hasierako dirulaguntzaren zenbatekoak edo zerbitzu guztiei erantzuteko nahikoa ez dela izango ohartzen denean.

## **10. artikulua. Dirulaguntzaren zuriketa**

Dirulaguntza zurituko da hitzarmena sinatu duten taxilarien bitartez. Horretarako, taxilariak zerbitzuaren formularioak aurkeztu beharko dituzte.

Aurrekoaren kaltetan barik, dirulaguntza justifikatzerakoan zalantza edo intzidentziaren bat sortuko balitz, zenbatekori buruz ari garela edo baita dirulaguntza dagokion ala ez, Udalak taxi-gidariari egoera argitzeko izango den dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio.

Bardin erabiltzaileari, zerbitzua ematerakoan taxilariarekin arazoren bat sortu bada Auzo-taxi programa erabili ahal duen ala ez argitzeko eta bidaiaren kostu osoa ordaindu behar izan duen kasuan (kontura ordaindu barik). Kasu honetan, taxilariari eskatu ahal izango dio eta ondoren Udalean aurkeztu dagokion faktura, udal zerbitzu teknikoek egiazta dezaten dirulaguntzarako baldintzak betetzen dituen ala ez eta justifikatzeko. Azken kasu honetan, dirulaguntza ordaintzea onartzen den kasuan, zenbatekoa, zuzenean, erabiltzaileari ordainduko zaio, honek erabilitako Auzo-taxi zerbitzuaren kostua ordaindu badu.

Artikulu honetan eta gainerakoetan jasotakoak ez du inolako eraginik Auzo-taxi zerbitzua erabiltzeagatik erabiltzaileek faktura eskatzeko duten eskubidean, taxi-gidaria behartuta baitago kontsumitzaile eta erabiltzaileen gaineko legeriarekin eta aplikagarria den gainerakoarekin bat faktura ematera.

## **11. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin**

11.1.- Dirulaguntza hau, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada diru-laguntzen berezitasunetako bat bateragarria ez izatea. Edozein modutan, gainfinantzaketa ezinezkoa izango da, horretarako onuradun edo familia-unitate bakoitzak egindako bidaiekin lotuta jasotako diru-laguntzen gutzia hartuko da kontuan.

11.2.- Gainfinantzaketa dagoela zehazteko, 7.4 artikulua jasotzen duen behin betiko erabakian honako datu hauek hartuko dira kontuan:

a.- Elorrioko Udalak emandako dirulaguntza.

b.- Erakunde publiko edo pribatuengandik jasotako dirulaguntzak edota laguntza. Auzo-taxi programak betetzen duen garraioaren finantzaketarako lortu diren beste edozein sarrera edo dirulaguntzak batzuk.



Horretarako, eta behin betiko onartuko den dirulaguntzan eragina izan dezakelako, onuradunek oinarri hauen 4.2.d) artikulua aipatzen duen zinpeko deklarazioaz gain behartuta daude Udalari jakinaraztera aipatutako deklarazioan jasotako datuen gainean izandako edozein aldaketa. Baldintza hau bete ezean dirulaguntzaren gaineko eskubidea baliogabetuko du, eta kasu honetan bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko ditu.

Errebokatu edota itzuliko dena Elorrioko Udalak onartutako hasierako edo behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoen gainean egingo da.

## **12. artikulua. Dirulaguntzaren publizitatea (onuradunak)**

12.1- Onuradunek jasotako dirulaguntzaren gaineko publizitatea ematera behartuta daude artikuluhonek aurreikusten duen eran.

12.2- Dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta publizitatea esaten denean dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak Foru Ogasunari jakinaraztea ulertu behar da, zerga kontuaz ari garelako.

12.3.- Udalak onuradunei eska ahal izango die aipatutako publizitate neurriak hartu dituztela jakinaraztea edo, ofizioski egingo du Udalak.

## **13. artikulua. Itzulketa**

Zenbatekoak itzuliko dira deialdi eta oinarri hauetan xedatutakoaren barruan, eta edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulpena ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

Aurrekoaren kalterik barik, itzulpena Dirulaguntzen Lege Orokorraren, hau garatzen duen Erregelamendua, Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duen moduan egingo da.

## **14. artikulua. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, 38/2003, legea garatzen duen Erregelamendua eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

## **15. artikulua. Datu-babesa**

Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorraren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera, eskatzaileari jakinarazten diogu emandako datu pertsonalak honela tratatuko ditugula:

- Arduraduna: Elorrioko Udala – [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus) Datuen babeserako ordezkaria: Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus)
- Helburua: Elorrioko Udalaren 2026ko AUZO-TAXIra dirulaguntzak kudeatzea.
- Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren ondoriozko legezko betebeharra
- Kontserbazioa: Datuak aipatutako helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, betiere artxibatze araudi aplikagarriak ezartzen duena errespetatuz.
- Hartzaileak: Arduradunak datuak jakinarazi ahal izango dizkie gaian eskumena duten agintariei.
- Eskubideak: Pertsona eta elkarte eskatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo eramateko eskubideak erabil ditzakete, idatziz, Elorrioko Udaleko erregistrora edo Datuak Babesteko ordezkariaren helbide elektronikora ([dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus)). NANaren edo sinadura elektronikoko aitortuaren kopia erantsi beharko da. Era berean, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.



## I ERANSKINA

### AUZO-TAXI PROGRAMAN SARTZEN DIREN AUZUNE, ETXE-EREMU ETA IBILBIDEAK

### ERABILTZAILEAK HURRENGO AUZUNE EDO ETXE-EREMUETAN ERROLDATUTA EGON BEHARKO DIRA

Aldape  
Arabio  
Arauneta  
Argiñeta Etorbidea 1, 3 eta 32,34  
Arestiortu kalea  
Arrasate Etorbidea  
Berrio  
Berriozabaleta  
Besaide kalea, 12,14 eta 17 (Pulla)  
Erdella kalea  
Gaztañeta  
Gazeta  
Gipuzkoa hiribidea  
Iguria  
Lekeriketa  
Leiz  
Lourdes etorbidea  
Mendraka  
Miota  
San Agustin  
San Antón kalea  
San José 12, 14, 16 eta 18 zbkia.  
Urkizuaran (14 zktik. 24 zkra., biak barne) eta 27tik Aurrera.  
Zenita.

### DIRUZ LAGUNDUKO DIREN IBILBIDEAK

Auzo-taxi programak hurrengo ibilbideak diruz lagunduko ditu:

- a) Aipatutako edozein auzune edo etxe-eremuetatik hirigunera egindakoak, eta alderantzizkoak.
- b) Aipatutako auzune edo etxe-eremuen artean egindakoak.



**II. ERANSKINA - ESKABIDE-ORRIA  
AUZO-TAXI PROGRAMA**

**ANEXO II – SOLICITUD  
PROGRAMA AUZO-TAXI**

**ESKATZAILEA**

Izen-abizenak	NAN
Helbidea	Tel.: Posta e.:

<p><b>ESKATZEN DUDAN EREDUA:</b></p> <p><input type="checkbox"/> <b>A EREDUA (adierazi zergatia):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 65 urtetik gorakoa naiz.</li> <li>○ Ezgaitasun bat dut, %33koa, gutxienik, <b>egiaztatuta</b>.</li> <li>○ Familia-unitatearen diru-sarrerak <b>III. eranskinean</b> ezarritakoak baino txikiagoak ditudala.</li> <li>○ Osasun arazoiengatik mugikortasun urria dudala aldi baterako. Medikuari <b>egiaztagirian</b> ikus daiteke.</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> <b>B EREDUA</b></p>	<p><b>MODALIDAD QUE SOLICITO:</b></p> <p><input type="checkbox"/> <b>MODALIDAD A (indicar motivo):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Soy mayor de 65 años.</li> <li>○ Estoy afectada por una incapacidad <b>acreditada</b> de, al menos, el 33%.</li> <li>○ La unidad familiar dispone de ingresos inferiores a los establecidos en el <b>anexo III</b>.</li> <li>○ Mi movilidad está temporalmente reducida por causas médicas debidamente <b>acreditadas</b>.</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> <b>MODALIDAD B</b></p>
---	--

<p><b>ADIERAZTEN DUT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Ez nagoela dirulaguntzak jasotzeko ezintasun egoeran, oinarrien 4 artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p><input type="checkbox"/> Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean nagoela.</p> <p><input type="checkbox"/> Ez nagoela dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorrean jasotako arrazoi eragozleetan sartuta.</p> <p><input type="checkbox"/> Xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik eskatu edo eskatzeko asmoa ez dudala.</p> <p><input type="checkbox"/> Xede berbera finantzatzeko hurrengo dirulaguntzak eskatu(ko) edo jaso ditudala:</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>DECLARO:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Que no concuro en ninguna de las circunstancias impeditivas previstas en el art. 4 de las Bases.</p> <p><input type="checkbox"/> Que estoy al corriente de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.</p> <p><input type="checkbox"/> Que no me hallo incurso en las causas impeditivas recogidas en la Ordenanza General municipal de Subvenciones.</p> <p><input type="checkbox"/> Que no he solicitado ni tengo previsto solicitar otras subvenciones para financiar el mismo objeto.</p> <p><input type="checkbox"/> Que he solicitado, tengo previsto solicitar o he recibido las siguientes subvenciones para financiar el mismo objeto:</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
--	---

<p><i>Eskabidea aurkezteak berekin dakar Elorrioko Udalarai baimena ematea izapide hori ebazteko behar den dokumentazioa biltzeko, salbu eta berariaz aurka egiten ez baduzu.</i></p> <p><b>OHARRA:</b> Uko eginez gero, aurreko atalei dagokien dokumentazioa erantsi beharko da.</p>	<p><i>La presentación de la solicitud conlleva la autorización al Ayuntamiento de Elorrio para recabar la documentación necesaria para la resolución de este trámite, salvo que usted se oponga expresamente.</i></p> <p><b>NOTA:</b> En caso de oponerse deberá adjuntar la documentación correspondiente a los apartados anteriores.</p>
--	--



<input type="checkbox"/> <b>AURKA EGITEN DIOT</b> Elorrioko Udalak honako datuak egiaztatzeari eta arrazoi hauek ematen ditut: ..... .....	<input type="checkbox"/> <b>ME OPONGO</b> a que el Ayuntamiento de Elorrio realice la comprobación de los siguientes datos, alegando los siguientes motivos: ..... .....
--	--

**Erantsi beharreko dokumentazioa / Documentación a aportar:**

- **ESKATZAILE GUZTIAK (A eta B) / TODAS LAS PERSONAS (Modalidades A y B)**

**Eskabide-orria sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI de la persona que suscribe la instancia.**

- **A EREDUAREN ESKATZAILEAK / SOLICITANTES DE MODALIDAD A**

**Hala denean, familia osatzen duten kideen 2021eko edo 2022ko Errenta Aitorpenaren fotokopia / En su caso, fotocopia de la Declaración de la Renta (2021 ó 2022 según proceda) de los miembros de la unidad familiar.**

**Kasua bada, mugikortasun urria aldi baterako duela egiaztatzen duen agiria. En su caso, acreditación de movilidad temporalmente reducida.**

**Kasua bada, gutxienez %33ko ezgaitasunaren egiaztatzea. / En su caso, acreditación de una incapacidad de, al menos, el 33%**

Elorrio, \_\_\_\_\_  
(data)

\_\_\_\_\_  
(sinadura)

**Datuen babesa**

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Legeak (LOPD) xedatzen duenarekin bat jakin behar duzu, agiri honen bidez emon dituzun datuak Elorrioko Udalaren "Hirugarrenen erregistroan-BiscayTIK" izeneko fitxategian sartuko ditugula hirugarrenen alta kudeatzeko. Eta eskubidea duzu fitxategia erabili, zuzendu, ezabatu, eta aurkaratzeko Elorrioko Udaleko erregistroan aurkeztutako idatzi bidez (Herriko Plaza 48230 Elorrio).

**Protección de datos**

De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa que los datos aportados en este documento serán recogidos en un fichero denominado "Registro de terceras partes – biscaytik" propiedad del Ayuntamiento de Elorrio con el fin de gestionar el alta de terceros. Puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito al registro del Ayuntamiento de Elorrio (Herriko plaza, 48230 Elorrio)

**DIRUZAINNTZA**

**Udalarekin Zorra**

**Bai**

**Ez**